

Negu Gorriak

"Ustelkeria"

Visit "[Ustelkeria](#)" on MotoLyrics.com

X.- EH! KAKI! ENTERATU AL HAIZ?

K.- ZE TRIPAKOMIN DUK,
HAGO LASAI.

LURRIKARA BEZALA HATOR,
BERRIZ ERE ORAIN.

X.- EZ AL DUK IRAKURRI
EGUNKARIAK DAKARRENA?
FRANCISCO RODRIGUEZ GALINDO,
TENIENTE CORONELARENA?

K.- ZEIN? GUARDIA ZIBILA?
ITXAURRONDOKO KOARTELEKO
KOMANDANTEA?

TERRORISMOAREN KONTRAKO
ARDURADUN NAGUSIENETAKOA?
-JADA, EZ NAU EZER HARRITZEN.

X.- BAITA ONDOKO USTELKERIAREN
"ARDURADUN NAGUSIA";
TALDE ANTITERRORISTAK BALIATUZ,
NARKOTRAFIKOKO OPERAZIOAK
EGITEN ZIZKIAN.

K.- ORDUAN,
IRUNGO KOKAINA DESAGERKETAREN
KASUA "BIDASOA OPERAZIOA"
DELAKOAN ZIUR ERLAZIONATURIK
EGONGO DELA.

X.- JAKINA BAIETZ.
DUELA BI URTE MAIATZEAN,
GOARDIA ZIBILAK
TONA INGURU KOKAINA
HARRAPATU ETA KOMISALDEGIAN
150 KILO DESAGERTU HITUEN.

K.- TORI USTELKERIA, TXO!
BADAKIK INTERES EKONOMIKOAK

ELKARTUZ GERO,
GUREAK EGIN DIK.

-JADA, EZ NAU EZER HARRITZEN

X.- EH! KAKI!

BADAKIK ZER EGINGO NUKEEN NIK?
BA, DROGA LEGALIZATU.

K.- BENO AMERIKAN "LEY SECA"
GARAIAN, INOIZ BAINO

MAFIA GEHIAGO SORTU HITUEN.

X.- INOIZ BAINO FALTSUZTAPEN
GEHIAGO ETA GAINERA
INOIZ BAINO GEHIAGO
EDAN ZIAN JENDEAK.

K.- LEGALIZAZIOA IZANEZ GERO,
LEHENENGO ARAZOA BUKATUKO DUK.
ETA EZ DUK GUTXI.

-JADA, EZ NAU EZER HARRITZEN.

Visit [Negu Gorriak](#) page on MotoLyrics.com, to get more lyrics and videos.

[MotoLyrics.com](#) | Lyrics, music videos, artist biographies, releases and more.